



Esp.kodea: 2012IING0048

Gaia: BIODIBERTSITATEAREN ALDEKO
KONPROMISOA DERITZON PROPOSAMENA
AZALTZEA.

ZIURTAGIRIA

IÑIGO GARITANO LARRAÑAGA JAUNA
ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA: Udal Plenoak, 2012ko irailaren 25an egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

**“NATURTZAINDIA”, BIODIBERTSITAREAN ALDEKO KONPROMISOAREKIN
BAT EGITEKO PROPOSAMENA**

Udal Plenoak, aho batez, Ingurumen Batzordeak emandako ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:


“Naiara Corcuera Landaluzek, NATURTZAINDIA elkartearen izenean, eskatzen dio Arrasateko udalari aurkezturiko “Biodibertsitatearen aldeko konpromisoarekin” bat egiteko.

Gaia aztertu ondoren Ingurumen Batzordeak zera Proposatzen dio Udal Plenoari:

- NATURTZAINDIAk aurkezturiko Biodibertsitatearen aldeko konpromisoarekin bat egitea (2. eranskina)”

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2012ko irailaren 27an.

O.E.
ALKATEA



II. ERANSKINA

BIODIBERTSITATEREN ALDEKO KONPROMISOA

ARRASATEKO UDALA

Erabaki honen bitartez Arrasateko Udalak onartu nahi du naturak duen garrantzia gizartearen ongizaterako eta oparotasunerako. Horregatik, korporazio honek konpromisoa hartzen du udalerriko ondare naturala hobetu, kontserbatu eta ezagutzera emateko ekintzak sustatu eta gauzatzeko, azken batean, ondare hori galdu ez dadin jarduteko.

Gure kudeaketa eredua aldatu beharra dago. Komunitate zientifikoak hau dio:

- Gure planetak daukan ingurumen arazo nagusia dela biodibertsitatearen galera, klimaren aldaketarekin batera.
- Ez indarrean dagoen legeriak, ezta eremu zabalak babesteak ere, ez dute lortu Europako biodibertsitatearen gainean etengabe areagotzen ari den presio etengabea geldiaraztea; lurzorua erabilerak aldatu egin dira, gehiegi ustiatu dira biodibertsitatea eta haren osagaiak, espezie exotiko inbasoreak kontrolik gabe zabaldu dira, eta kutsadura eta klima aldaketa konstante mantendu dira edota areagotu egin dira. Eragina dute, baita ere, biodibertsitatearen galeran, biztanleriaren hazkundera, gizartearen sentsibilizazio eskasak eta erabakiak hartzeko prozesuetan ez dela kontuan hartzen biodibertsitateak eskaintzen duen balio ekonomikoa, eta horrek eragiten du praktikan naturak duen garrantzia gutxiesten.

COMPROMISO A FAVOR DE LA BIODIVERSIDAD

AYUNTAMIENTO DE ARRASATE/MONDRAGÓN

A través de este acuerdo, el Ayuntamiento de Arrasate/Mondragón desea reconocer y manifestar el valor de la naturaleza para el bienestar y prosperidad de nuestra sociedad. Por ello, esta Corporación se compromete a promover y realizar acciones para la mejora, conservación y difusión del patrimonio natural en su término municipal y en definitiva, para frenar su pérdida.

Nuestro modelo de gestión territorial debe cambiar. La comunidad científica valora que:

- La pérdida de la biodiversidad se convierte en la mayor amenaza medioambiental planetaria, junto con el cambio climático.
- Ni la legislación en vigor ni la protección de una amplia superficie del territorio han evitado la continua y creciente presión sobre la biodiversidad europea: cambios en el uso del suelo, sobreexplotación de la biodiversidad y de sus componentes, extensión de especies exóticas invasoras, contaminación y cambio climático constantes o en aumento. También pesan gravemente sobre la biodiversidad el crecimiento de la población, la escasa sensibilización social y el hecho de que el valor económico de la biodiversidad no se refleja en los procesos de adopción de decisiones, lo que lleva a subestimar la importancia de la Naturaleza en la práctica.



Esp.kodea: 2012IING0048

Gaia: BIODIBERTSITATEAREN ALDEKO
KONPROMISOA DERITZON PROPOSAMENA
AZALTZEA.

- Arazo hau tokiko eremutik gora badago ere, gure lurraldeari zuzenean eragiten dio. Dagoeneko, gure baso gehienak galdu ditugu, ez dugu lortu gure errekek eta ibaiak errekueratzea, ezta gure labore-lur onenak mantentzea ere. Beraz, gure ondare naturala kontserbatzeko egiten dugun esfortzua ez da nahikoa praktikan.

Gizarte aurreratua eta garatua garen heinean, joera hau aldatu egin beharko genuke. Europako Kontseiluak 2010ean ezarri zuen epemuga Europar Batasuneko ondare naturalaren egoera tamalgarria aldatzeko, baina onartu zuen ez zuela geldiarazi biodibertsitatearen galera, ezta ekosistemen zerbitzuen degradazioa gelditu ere, epe horretan. Horregatik, orain estrategia berria jarri du abian, Europako Biodibertsitatearen Estrategia 2020, epe berria ezarriz biodibertsitatearen galera gelditzeko, eta hona hemen haren 6 helburu nagusiak:

- Europako Zuzentarauak guztiz aplikatzea.
- Ekosistemak eta haren zerbitzuak mantendu eta leheneratzea.
- Nekazaritzak eta basogintzak biodibertsitatea mantentzen eta hobetzen egiten duten ekarpena handitzea.
- Arrantza baliabideak modu iraunkorrean erabiltzea.
- Espezie exotiko inbaditzaileen kontra jardutea.
- Europar Batasunak munduko biodibertsitatea galdu ez dadin eskaini dezakeen laguntza areagotzea.

- Es un problema que trasciende el ámbito local, pero que afecta de lleno a todo nuestro territorio. Ya hemos perdido la mayor parte de nuestros bosques, no hemos conseguido recuperar nuestros ríos, al igual que estamos perdiendo nuestras mejores tierras agrarias. El esfuerzo para conservar nuestro patrimonio natural es absolutamente insuficiente en la práctica.

Como sociedad avanzada y en progreso, debemos poner freno a esta tendencia. La Comisión Europea, tras haber fijado la meta 2010 para revertir la mala situación del patrimonio natural en la Unión Europea y reconocer no haber conseguido detener la pérdida de biodiversidad y la degradación de los servicios ecosistémicos en ese plazo, ha establecido ahora la Estrategia Europea Biodiversidad 2020, como nueva meta para detener la pérdida de biodiversidad, con 6 objetivos principales:

- Aplicar plenamente las Directivas Europeas.
- Mantener y restaurar los ecosistemas y sus servicios.
- Aumentar la contribución de la agricultura y la silvicultura en el mantenimiento y mejora de la biodiversidad.
- Lograr un uso sostenible de los recursos pesqueros.
- Luchar contra las especies exóticas invasoras.
- Intensificar la contribución de la UE para evitar la pérdida de biodiversidad en todo el mundo.

Arrasateko Udalak, aurreko korporazioetan ere bai, esfortzu esanguratsua egin du herriko biodibertsitatearen egoeraren berri emateko. Orain, bat egiten du 2020ko Europako helburuekin eta bere egiten du biodibertsitatea galtzen ez uzteko duen betebeharra. Beraz, Arrasateko Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planean jasotako helburuak berresten ditu eta aurrerantzean horretan lan egiteko konpromisoa hartzen du:

1.- Gure herriko natura guneen kontserbazio egoera hobetu eta babesteko; eta habitaten kudeaketa hobetu eta basa-bizitza babesteko beharrezko moldaketak egiteko. Konkretuki, legealdi honetan hauek egingo ditugu Arrasaten:

- Titulartasun publikoa duten terrenoetan kontserbazio egoera eta horiek hobetzeko eta leheneratzeko aukerak aztertzea, biodibertsitatearen kontserbazioaren aldetik. Esate baterako, Hidalgobaso, Kurtzetxiki eta Udalatx.
- Zorrotz babestea titulartasun publikoa duten lursailetan habitatak eta espezieak eta, hala badagokio, haien kontserbazio egoera hobetzea, betiere, naturaren kontserbaziorako Europako legeriak ezartzen duenaren arabera: Hegaztien eta Habitaten Zuzentaraua, eta Uraren Esparru Zuzentaraua.
- Titulartasun pribatuetako lursailetan ere antzeko ekintzak sustatzea eta laguntzea. Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan interes bereziko espezie moduan agertzen den *Quercus coccifera* populazioa babestea eta haren balioa ezagutzera ematea, hala nola, *Aster alpinus* eta *Jasione crispa* espezie arraroak ere bai.
- Herri eremuan babes bereziko guneak sustatzea, dagokion lurralde antolamendurako kategoria eman eta, ahal dela, beste administrazio batzuek bultzatzen dituztenekin

En el caso de Arrasate/Mondragón, anteriores corporaciones han realizado un esfuerzo significativo para conocer el estado de la biodiversidad en nuestro término municipal. Ahora, el Ayuntamiento se suma al objetivo del 2020 y asume su parte de responsabilidad en la tarea de frenar la pérdida de biodiversidad. Por ello, retomando los objetivos y planes del Plan de Acción Local para la Sostenibilidad, renovados por el Plan Estratégico de Mondragón 2010-2020, nos comprometemos a trabajar para:

1.- Mejorar el estado de conservación de nuestros espacios naturales, así como protegerlos, mejorando la gestión de sus hábitats y adecuándolos en lo necesario para proteger la vida silvestre. Y en concreto, acordamos que durante esta legislatura trabajaremos para llevar a cabo en Arrasate:

- Estudiar el estado de conservación, así como las oportunidades para su restauración y mejora desde el punto de vista de la conservación de la biodiversidad, de los terrenos de titularidad pública como las áreas de Hidalgobaso, Kurtzetxiki y Udalaitz.
- Proteger estrictamente los terrenos de titularidad pública que acojan hábitats y especies de interés y en su caso, mejorar su estado de conservación, en el marco establecido por la legislación europea de protección de la Naturaleza, en concreto, las Directivas de Aves y de Hábitats y la Directiva Marco del Agua.
- Promover e incentivar actuaciones similares en los terrenos de titularidad privada. Como por ejemplo proteger y dar a conocer el valor de la comunidad de *Quercus coccifera*, especie catalogada de interés especial en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas, así como las especies catalogadas como raras *Aster alpinus* y *Jasione crispa*.
- Promover la creación de espacios protegidos a nivel local, dotándolos de la categoría de ordenación adecuada y procurando coordinarlos



Esp.kodea: 2012IING0048

Gaia: BIODIBERTSITATEAREN ALDEKO
KONPROMISOA DERITZON PROPOSAMENA
AZALTZEA.

elkarlanean.

- Zehatz esanda, lan egingo dugu interes bereziko natura gune hauek hobeto defintzeko: Udalatx mendia, Kurtzetxiki, Hidalgobaso, Etxezarretako hariztia eta Monterrongo eta Santa Barbarako zuhaitziak, adibidez.

2.- Ingurune naturalari eragindako kalteak lehengoratzeko, ahal den heinean. Erabaki dugu oraingo legealdian lan hauek egitea Arrasaten:

- Esandako titulartasun publikoa duten lursailak nagusiki erabiltzea habitaten kontserbazio egoera babesteko eta errekupezatzeke. Naturaren Babeserako Europako Legeriak ezartzen duenaren araberrako kudeaketa planak sustatzea. Ahalegin berezia egingo dugu Zagurdiko Herri Onurako Mendian jatorrizko basoa errekupezatzeke, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean.
- Herri barnetik pasatzen diren erreka-tarteetan jabego publiko hidraulikoaren muga berreskuratzeko eskatuko dugu eta hainbat ekintza sustatuko dugu toki horiek kontserbatu, errekupezatu eta hobetzeko. Hala nola, Deba eta Aramaio erreka azaleratzeko aukerak aztertzea, bertako landareen birsorkuntza naturala lehenetsiz, bai eta inguruak birlandatzea eta landare inbaditzaileak kontrolatzea ere.

3.- Hiriko berdeguneak elkarrekin konektatzea eta berdegune horiek urbanizatu gabeko eremuekin, mendiko bideen sarearekin, eta horrela, udaleko ibilbide berdeen sarearekin lotzea.

4.- Baliabide naturalen aprobetxamendu arrazionalerantz egitea, eta horretarako, aztertzea neurri fiskalak eta beste batzuk ezartzea, ingurune naturalarekin errespetuz jokatzten duten jarduerak laguntzeko; edota modu esanguratsuan laguntzen dutenak akordio honetako helburuak betetzen, adibidez, balio handiko nekazaritza eremuetan, kudeaketa eredu iraunkorak hartzea.

con los impulsados por otras administraciones

- En concreto, trabajaremos para definir las áreas de interés natural del Monte Udalatx, Kurtzetxiki, Hidalgobaso, el robledal de Etxezarreta y las arboledas de Monterrón y Santa Bárbara, por ejemplo.

2.- Restaurar en la medida de lo posible los daños provocados a nuestro medio natural. Y acordamos que durante esta legislatura trabajaremos en Arrasate para:

- Destinar principalmente los terrenos de titularidad pública a proteger o recuperar el estado de conservación de los hábitats y de las especies, en el marco establecido por la legislación europea de protección de la Naturaleza. Se hará especial incapié en restablecer bosque originario en Zagurdi mediante la colaboración de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- En los tramos fluviales que discurren por el término municipal solicitaremos el deslinde del dominio público hidráulico y promoveremos acciones de restauración, mejora y conservación de los mismos. También valoraremos las opciones descubrir los ríos Aramaio y Deba, promoviendo la regeneración natural del bosque de ribera y controlando las especies exóticas invasoras.

3.- Desarrollar conexiones entre espacios, creando la infraestructura verde municipal, para fortalecer las relaciones entre el medio urbano y el medio natural y uniendo los caminos rurales y creando una red de senderos verdes.

4.- Progresar hacia el aprovechamiento racional de los recursos naturales, estudiando el establecimiento de medidas fiscales y otras que favorezcan aquellas actividades económicas respetuosas con el medio natural que contribuyan de manera significativa al cumplimiento de los objetivos de este acuerdo, como por ejemplo los sistemas agrarios de alto valor natural que adopten formas de gestión sostenibles.

Esp.kodea: 2012IING0048

Gaia: BIODIBERTSITATEAREN ALDEKO
KONPROMISOA DERITZON PROPOSAMENA
AZALTZEA.

Horrekin batera, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren inguruan herritarrei prestakuntza saioak eskaintzen jarraitzea, horretarako eskuduntza duten erakundeekin lanean.

5.- Herriko ondare naturala ezagutzera ematea eta daukan balioaren inguruan sensibilizatzea. Legealdi honetan helburu hauek lortzeko egingo dugu lan:

- Udalerritik pasatzen diren PR ibilbideak errekueratu eta egokitzea.
- Udalerriko ibilbide berdeen sare bat sortzea eta honi balioa ematea Bide Publikoen Inbentariotik abiatuz eta "Bide Eraztuna" sortzeko Besaide MEkoek egindako proposamena aintzat hartuz.
- Natura ibilbideak prestatzea eta atontzea, herritarrek herriko natura txokoak ezagutu ditzaten, eta haiek interpretatzeko egiturez gozatzeko aukera ematea (informazio panelak, biodibertsitatearen inguruak, eta abar).
- Parte-hartze jarduerak antolatzea herrian, herritarrek lagundu dezaten biodibertsitatea kontserbatzen eta hobetzen (zuhaitz egunean, erreka garbiketan, eta abar).
- Biodibertsitatearen inguruko ibilaldi gidatuak, argitalpenak eta hitzaldiak antolatzea eta eskaintzea herritarrei, dibulgazio eran, herrian egiten diren biodibertsitateari buruzko lanen berri emateko
- Udal Ingurumen Eskolatik biodibertsitatearen gaia lantzeko programak eskaintzea, ikasleek aktibitate ezberdinekin gaiarekin loturiko arazoak aztertzeko.

Ekipamendu honetan "bioaniztasunaren txokoa" antolatuko da."

Asimismo, continuar con la oferta de actividades formativas a los vecinos en agricultura y ganadería ecológica, en colaboración con las organizaciones con competencia en la materia.

5.- Dar a conocer el patrimonio natural de la localidad y sensibilizar a los vecinos sobre su valor. Durante esta legislatura trabajaremos para:

- Recuperar y adecuar los senderos de PR que atraviesen el municipio.
- Crear y dar valor a una red de senderos verdes partiendo del Inventario de Caminos Públicos y de la propuesta realizada por Besaide M.E. para crear un anillo verde.
- Acondicionar dichos senderos naturalísticos para que permita conocer y disfrutar los valores naturales del municipio, dotándolos de infraestructura para su interpretación (paneles sobre biodiversidad...).
- Celebrar eventos participativos que faciliten la implicación de los vecinos en las tareas de conservación y restauración de la biodiversidad (plantaciones de árboles para restaurar el bosque, limpieza del río, etc.)
- Organizar y ofrecer recorridos guiados, publicaciones y charlas, para transmitir y dar a conocer a los ciudadanos, de manera divulgativa, los trabajos sobre biodiversidad que se realicen en el municipio.
- Ofrecer desde el centro medioambiental municipal programas que trabajen el tema de la biodiversidad a fin de que los alumnos-as analicen los problemas que se relacionan con el tema.

En este equipamiento se creará el txoko de la biodiversidad.



Esp.kodea: 2012IING0048

**Gaia: BIODIBERTSITATEAREN ALDEKO
KONPROMISOA DERITZON PROPOSAMENA
AZALTZEA.**

6.- Arrasateko Udalak parte hartu dezakeen kasuetan biodibertsitatearen kontserbazioan antolatutako batzordeetara eta foroetara joatea modu aktiboan, eta parte-hartze egiturak sustatzea, akordio honetan ezarritako neurriak abian jartzeko.

7.- Beste administrazio batzuekin elkarlana egitea, mehatxupean dagoen faunaren eta floraren kontserbazioaren aldeko neurriak hartzeko eta hobekuntza lanak aurrera eramateko. Zehazki:

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinazioa indartzea espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko lanaren harira. Eusko Jaurlaritzarekin ere koordinazioa handitzea korridore ekologikoen lotura hobetzeko; EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen baitan dagoen Izarraitz-Aizkorri-Aratz korridorea, baita sentibilizaziorako eta hezkuntzarako ekintzak garatzeko eta finantzatzeko ere.
- Elorrioko Udalarekin koordinazioa indartzea korridore ekologikoaren kudeaketa koordinatzeko, Udalatx mendiaren Interes Naturalistikoaren Eremuan.

8.- Udaleko beste sailek garatzen edo baimentzen dituzten proiektu guztietan kontuan hartzeko biodibertsitatearen kontserbazioa (Plan Orokorretik datozenak zein beste batzuk). Horretaz gain, konpromisoa hartzen dugu herriguneko zuhaiztien kudeaketa txostenak aintzat hartzeko, eta herri eremuko ordenantza bat bultzatzeko herriguneko parkeen, lorategien eta zuhaiztien kudeaketa iraunkorra lortzeko; espezie inbaditzaileen erabilera debekatzeko eta hemengoak erabiltzearen alde egiteko, besteak beste.

9.- Beste administrazio batzuek bultzatutako jarduerak eta proiektuak gure udalerriko ingurumenean eragin negatiboak dituztenean, kalte horiek gutxiesten edo errekuperatzen lan egiteko.

6.- Participar activamente en los foros sobre conservación de la biodiversidad a los que el Ayuntamiento de Arrasate/Mondragón tenga acceso y promover la creación de estructuras participativas para impulsar la puesta en práctica de las medidas contempladas en este acuerdo.

7.- Colaborar con otras administraciones para la toma de medidas y realización de acciones y trabajos a favor de la conservación de la flora y la fauna amenazada de Arrasate/Mondragón. Y en concreto:

- Reforzar la coordinación con la Diputación Foral de Gipuzkoa para el control de especies exóticas invasoras. Reforzar la coordinación con el Gobierno Vasco para mejorar la conexión del corredor ecológico en el término municipal, concretamente el corredor Izarraitz-Aizkorri-Aratz recogido en la Red de Corredores Ecológicos de la CAPV, así como para el desarrollo y financiación de actividades de sensibilización y educación.
- Reforzar la coordinación con el Ayuntamiento de Elorrio para la gestión del corredor ecológico en el Área de Interés Naturalístico del monte Udalatx.

8.- Contemplar la conservación de la biodiversidad en todas las áreas y proyectos que impulse y autorice el Ayuntamiento (actuaciones derivadas del futuro Plan General de Ordenación Urbana y otras). En este sentido, nos comprometemos igualmente a impulsar durante esta legislatura la Ordenanza Municipal sobre gestión del arbolado y espacios verdes urbanos, que entre otros aspectos evite el uso de especies con potencial invasor y favorezca el empleo de especies locales cuando sea posible.

9.- Reducir y restaurar los impactos ambientales negativos que hayan podido crear los proyectos o actividades promovidos por otras administraciones en el municipio.

Esp.kodea: 2012IING0048

Gaia: BIODIBERTSITATEAREN ALDEKO
KONPROMISOA DERITZON PROPOSAMENA
AZALTZEA.

- AP-1 autopistaren obrek sortutako hondakindegiek eta lur indusketek eragindako paisaiaren degradazioa hobetzeko bideak aztertzea, dagokion erakunderekin elkarlanean.
- AHTren obren jarraipena egitea eta iturburuetak ur emaria eta kalitatea kontrolatzea.
- Kanpanzarko eta Kobateko harrobien ingurumeneko jarraipen txostenak gainbegiratzea.
- Analizar las vías de mejorar la degradación del paisaje derivado de las excavaciones y la creación de escombreras debido a las obras de la autopista AP-1.
- Realizar el seguimiento de las obras del TAV y controlar la calidad y caudal de las fuentes de agua.
- Supervisar los informes de seguimiento ambiental de las Canteras de Kanpanzar y Kobate.

Azkenik, konpromiso hau Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari helarazteko erabakia hartzen dugu, eta hau eskatzen diegu:

Finalmente, acordamos comunicar éste compromiso a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, a las que solicitamos:

- Onartu dezatela biodibertsitatearen aldeko konpromiso bat eta inbertsioak handitu ditzatela eremu horretan.
- Udalarekin bat egin dezatela akordio honetako helburuak garatzen.
- Herriko baso eta mendietan lagundu dezatela lehengoratzeko jarduerak finantzatzen, biodibertsitate arloan.
- GFAk uko egin diezaiola basoa ustiatzeari herri onurako katalogatutako herri lurretan, eta helburu bakarra izan dadila hemengo basoak errekuperatzea.
- Legealdi honetako aurrekontuetan behar beste kontusail onartu dezatela, Gipuzkoako ondare naturala kontserbatu, lehengoratu eta zabaltzeko, udalekin elkarlanean.
- Suscriban a su vez un compromiso a favor de la biodiversidad y aumenten las inversiones en este ámbito.
- Colaboren con este Ayuntamiento en el desarrollo de los objetivos locales.
- Colaboren en la financiación de actividades de restauración en los bosques y montes en temas de biodiversidad.
- Que la DFG renuncie a la explotación forestal en los terrenos públicos catalogados como de utilidad pública, y que el único objetivo sea la recuperación de los bosques autóctonos.
- Incluyan partidas suficientes en los presupuestos de esta legislatura para poder abordar la conservación, restauración y difusión del patrimonio natural de Gipuzkoa, en colaboración con los Ayuntamientos.

Halaber, Udalaren adierazpen instituzional hau hedabideetara igortzea onartzen dugu, zabaldu dezaten.

Así mismo, aceptamos remitir esta manifestación institucional municipal a los medios de comunicación para su difusión.